

# KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa balioan oinarritutako negozio eredua izango da. Porterren legeak dioen bezala, gure produktua desberdinduko dugu besteetatik (produktu ekologiko eta jasangarri bat bezala salduaz).

Gure kostuak bi multzotan bereizten dira, kostu finkoak eta aldakorrak. Kostu finkoen artean argindarra, WiFi eta mugikor tarifa, langileen soldatak, produktua finantzatzeko kreditua eta publizitatea sartzen dira. Argindarrari dagokionez, %100 berdea izango da, hau da, soilik iturri jasangarrietatik lorturiko energia erabiliko dugu. WiFi eta mugikor tarifari dagokionez, euskalteleko zerbitzuak kontratatuko ditugu, zehazki Pymes plana. Langileen soldatei erreparatuz gero, 1400€ko soldatak ordainduko ditugu, zortzi orduko lanaren truke. Jarraitzeko, gure produktua aurrera eramateko banku kreditua eskatuko dugu 50.000€ ingurukoa. Gainera, gure produktua ezagutarazteko publizitate enpresa baten zerbitzuak kontratatuko ditugu. Amaitzeko, gure enpresak izango duen azken kostu aldakorra makinien lising alokairua izango da.

Kostu aldakorrei dagokionez, horietatik lehenengoa gure produktuak gauzatzeko ezinbestekoa den PET tela ekologikoa eskuratzea da. Tela hura hornitzaile desberdinen bitartez eskuratuko dugu eta erosiko dugun tela kopurua momentuan gure produktuek duten eskariaren araberakoa izango da. Telaz gain, gure enpresak dituen gastuen artean motxilak ekoizteko beharrezkoak diren kremailerak eta sandalien zola egiteko erabiliko dugun kortxoak aurkitu ditzakegu. Zehazki, kremailerei dagokionez, unitate bakoitzak 0'70€ko balioa du. Berriz, kortxoari dagokionez, kortxo kilo bakoitza 1'7€tan erosiko dugu. Hasiera batean gure webgunea diseinatu beharko dugu produktuak saldu ahal izateko, horretarako webgunearen diseinua egingo duen diseinatzaileari ordainduko diogu, 1500€ko aurrekontuarekin.